


Esne Bideko **IZARRAK**


Espazio-bidaia




Konta Kontari

Lurra planeta txiki bat da Unibertsoan, planeta guztiak bezala, izar baten inguruan bira egiten duena. Izar hori Eguzkia da eta Lurratik ikusita gu baino txikiagoa badirudi ere, Eguzkia oso handia da, bere inguruan dauden planeta guztiak baino handiagoa.

Gauean, beste izar asko agertzen dira zeruan ñirñirka. Horietako batzuk oso ezagunak dira eta izen bereziak badituzte.



Badira izar handiak eta badira txikiak, baina nolakoa da gure Eguzkia beste izarren aldean? Eta nolakoak dira beste izarrak?



Konta Kontari


Espazio-bidaia proposatzen dizuegu gaur. Espazio-ontzia hartu eta izarrak bisitatzera goaz, zatoz gurekin?

EGUZKIA

Lurretik atera eta aurkitzen dugun lehen izarra Eguzkia da. Gure Lurra argitzen eta berotzen duena. Izar **nanoa** da, hau da, bera baino askoz handiagoak diren izarrak badira.



Laranja kolorekoa; haren argia zortzi minutu behar ditu lurrazalara iristeko, beraz, ikusten ari duguna, orain dela zortzi minutuko Eguzkia da.



8 minutu




Bere gainazalaren tenperatura 5505°C-koa da.

Eguzkitik urbilen dagoen izarra Proxima Centauri da. Hara goaz ba.

PROXIMA CENTAURI

Proxima Centauri oso urbil dagoen izar txiki hotz bat da. Eguzkia bezala, izar nanoa da. Bere kolorea gorria da.



Eta kontrakoa pentsatzea normala bada ere, gorria ez du beroa dela esan nahi. Egia esan, kolorearen arabera, izar bat beroa ala hotza den jakin dezakegu. **Gorriak** hotzak dira eta **urdinak**, beroak.

SIRIO




Hau Sirio da, gure zeruan dagoen izarrik **disdiratsuen**a. Izar erraldoi zuria da, gure eguzkia baino 2 aldiz handiagoa.

Badu berarekin beste izar laguna (Sirio B), bera baino txikiagoa den nano zuria. Baina, hain gertu daudenez, Lurretik ikusita izar bakarra dirudite. Sirio utzi eta hurrengo izarrera goaz.

IPARIZARRA

Mapak eta telefonoak eskura izan aurretik, antzinako gizakiek izarrei begiratzen zieten bidaiatzeko. Izar guztien artean, Iparrizarra zen gehien laguntzen zuena.




Badakizu zergatik?

Lurretik ikustia, beste izarren aldean **ia mugitzen ez delako**.

Iparrizarra


Iparrizarra erraldoi horia da. Eta Sirio bezala, izar-sistema txiki bat osatzen du beste bi izarrekin batera.



Egunen batean, zerua oskarbi dagoenean, Iparrizarra aurkitu nahi baduzu, segi Hartz txikiaren izatza...

PLEIADEAK


Eta bidaian jarraituz,
Pleiadeetara ailegatu
gara. Oso izar bereziak,
multsoka bizi dira eta.



Lurretik ikusitak, lagunak direla dirudiela,
betidanik piztu izan dute gizakien imaginazioa.
Eta horrela, beraiei buruzko istorio zoragarriak
kontatu izan ohi dira. Batzuetan zazpi ahizpa
direla esaten da eta beste batzuetan, gizakien
jatorria direla. Istorio mitologikoak aldera utzita,
goazen azken izarrera.

STEPHESON 2-18

Stephenson 2-18 **masiboa** da,
izar super-erraldoia, unibertsoan
aurkitu den izarrik handiena.
Eguzkia baino hamar mila milioi
aldiz handiagoa, benetan
zoragarria. Gorria da eta oso
distiratsua. Astronomoek lanean
jarraitzen dute eta agian, noizbait, bera baino
handiago den izarra aurkituko dute.





Beno ba, itzuliko gara gure Lur
planeta txikira. Hurrengo batean
jarraituko dugu esplorazio-
bidaian.

Ezagutzen zenuen
hauetako izarren bat?

Eta, kontatu al dizute
inoz izar bati buruzko
istorio zoragarriren bat?

HURRENGORA ARTE, AGUR!

Konta Kontari



www.kontakontari.com



@kontakontari

GALDERAK

1.- Zein da gure zeruko izarrik distiratsuena?

- A) Iparizarra
- B) Sirio
- C) Stephenson 2-28

2.- Zein da gure eguzki-sistematik hurbilen dagoen izarra (Eguzkia alde batera utzita)?

- A) Sirio
- B) Pleiadeak
- C) Proxima Centauri

3.- Hauen artean, zein da izar handiena?

- A) Eguzkia
- B) Iparizarra
- C) Stephenson 2-28

4.- Zein izar erabiltzen zen antzina bidaietan gidatzeko?

- A) Iparizarra
- B) Proxima Centauri
- C) Pleiadeak

ERANTZUNAK

- 1.- B
- 2.- C
- 3.- C
- 4.- A

IZARREN BIDEOA YOUTUBEN



IZARREN AURKEZPENA GURE WEBGUNEAN

<https://www.kontakontari.com/mundua-ezagutzen/izarrak-liburuxka/>

ASTRONOMIARI BURUZKO BALIABIDE GEHIAGO

<https://www.kontakontari.com/mundua-ezagutzen/>